


Eskola-liburutegia eta Irakurzaletasuna Minorra



Irudiaren iturria: Denonartean argitaletxea

Ikaslearen gida
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Graduak
2026-2027

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA...	2
2. EGUTEGIA	3
3. MINORREKO IRAKASLE TALDEA...	4
4. MINORREKO IRAKASGAIAK.....	4
5. MINORREKO DIZIPLINARTEKO LANA...	9
6. JARDUERA OSAGARRIAK.....	11
7. LAN-HIZKUNTZAZ.....	11
8. MODULUKO OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA.....	11

1. TESTUINGURUA

Ikastegia: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Hezkuntza)	
Minorraren izena: Eskola-liburutegia eta Irakurzaletasuna	
Ikasturtea: 4. maila	Lauhilekoa: 1.a

Eskola-liburutegia eta Irakurzaletasuna minorrak literatura heziketaren inguruko prestakuntza espezializatua eskaintzea du helburu. Alde horretatik, minorrean honako alderdi hauek uztartzen dira: Haur eta Gazte Literaturaren (HGL) ezagutza, irakurzaletasunaren sustapena, literatura sormena, eskola-liburutegien funtzionamendua eta dramatizazioa zein haur antzerkia. Beraz, ikasleek HGL ikuspegi teorikotik ez ezik, irakurle, sortzaile eta bitartekari gisa ere esperimentatuko dute.

Minorra bost irakasgaik osatzen dute, eta guztiek helburu komun bat dute: HGLren inguruko ezagutza sendoa eskuratzea eta ezagutza hori etorkizuneko hezkuntza-praktikara eramateko gaitasuna garatzea.

Prestakuntza prozesuaren ardatza Minorreko Diziplinarteko Lana izango da. Lan horretan, ikasleek HGLko lan bat hautatuko dute eta, irakasgai bakoitzean landu beharrekoen bidez, obra horren irakurketa kritikoa, egokitzen dramatikoa eta irakurzaletasuna sustatzeko proposamenak garatuko dituzte.

2. EGUTEGIA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO K6 MODULUKO KRONOGRAMA OROKORRA	
1. astea (2026-09-07)	Minorreko aurkezpena lehen egunean egingo du irakasle taldeak, eta jarraian eskolak hasiko dira.
2. astea (2026-09-14)	
3. astea (2026-09-21)	
4. astea (2026-09-28)	Amaia Elizagoien ipuin kontalariaren hitzaldi-tailerra
5. astea (2026-10-05)	Minorreko Lanaren oinarri izango diren liburuen aukeraketa
6. astea (2026-10-12)	
7. astea (2026-10-19)	
8. astea (2026-10-26)	Yolanda Arrieta idazle eta bitartekariaren hitzaldi-tailerra
9. astea (2026-11-02)	Gidoi dramatikoaren idazketaren lehen bertsioa
10. astea (2026-11-09)	Gidoi dramatikoaren idazketaren bigarren bertsioa
11. astea (2026-11-16)	
12. astea (2026-11-23)	Galtzagorri Elkarteko kideen aurkezpena
13. astea (2026-11-30)	TOPIC txotxongiloen museora bisita eta haurrentzako antzezlan baten ikuskizuna
14. astea (2026-12-07)	Aukeratutako liburuen sustapena
15. astea (2026-12-14)	Minorreko lanaren azken emaitzak: antzezpenak

3. MINORREKO IRAKASLE TALDEA

Irakasgaia	Irakaslea	Telefonoa	Posta elektronikoa	Bulegoa
<i>Haur antzerkia eta dramatizazioa</i>	Amaia Alvarez Uria	945014459	amaia.au@ehu.eus	1-11
<i>Biblioteka eta irakurzaletasuna</i>	Asier Barandiaran	945014194	asier.barandiaran@ehu.eus	B-4
<i>Gaur egungo haur eta gazte literatura</i>	Karla Fernandez de Gamboa	945014190	karla.fernandezdegamboa@ehu.eus	B-6
<i>Irakurketa tailerrak</i>	Edu Zelaieta Anta	945013284	edu.zelaieta@ehu.eus	1-11
<i>Literatura tailerrak</i>	Edu Zelaieta Anta	945013284	edu.zelaieta@ehu.eus	1-11

4. MINORREKO IRAKASGAIAK

4.1. Ezaugarri orokorrak

Eskola-Liburutegia eta Irakurzaletasuna minor hau bost irakasgai hauek osatzen dute: Haur antzerkia eta dramatizazioa, Biblioteka eta irakurzaletasuna, Gaur egungo haur eta gazte literatura, Literatura tailerrak eta Irakurketa tailerrak. Irakasgai guztiak 6 kreditukoak dira.

Aipatutako irakasgaiotan Minorreko Diziplinarteko lana egin beharko da (5 kreditu). Hezkuntza graduetako beste moduluetan bezala, 6 kredituko irakasgai bakoitzetik kreditu 1 partekatuko da Minorreko Diziplinarteko Lana egiteko (5 kreditu).

4.2. Edukien deskribapen laburra eta minorreko irakasgaietako konpetentziak

Orain arte azaldutakoarekin bat etorrira, Eskola-Liburutegia eta Irakurzaletasuna Minorraren xedea Haur eta Lehen Hezkuntzan lan egingo duten profesionalek literaturaren didaktikaren ezagutza sakona izatea da. Azken helburua da irakurle iaio, autonomo eta kritikoak hezteko gai izango diren irakasleak prestatzea.

Hona hemen Minorra osatzen duten bost irakasgaietako gaitegien eta konpetentzien laburpena:

GAUR EGUNGO HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Eguno HGLren ikuspegi orokorra; korrante nagusiak; egile eta obra aipagarrienak; HGL modernoa eta literatura-kanona; HGLk haurrari euskal kultura transmititzeko eta haurra euskal kulturaren oinordeko egiteko duen zeregina.

Irakasgaiko konpetentziak:

GAUR EGUNGO HAUR ETA GAZTE LITERATURA	KONP./MAILA				
Irakasgaiko konpetentziak	1	2	3	4	5
1. Irakurzaletasuna sustatzea eta idaztera animatzea	X		X		
2. Literatura-prestakuntza jasotzea eta haur literatura ezagutzea		X		X	X
3. Bakarkako eta taldeko erantzukizuna baloratzea, etorkizun iraunkor baterako			X		X

Irakasgaian zehar landuko diren gaiak:

1. GAIA – Gaur egungo haur literaturaren eta gazte literaturaren panorama orokorra.

- 1.1. Sarrera historikoa
- 1.2. Haur eta gazte literatura sistemaz
- 1.3. Azterketarako giltzak

2. GAIA – Joera nagusiak

1. Ibilbide historiko –labur– bat haur-literaturan zehar ideologia agertuz
2. Ideologia Euskal Herriko HGLn
3. Globalizazioa, masen kultura eta kontsumismoa
4. Irudien bidezko mezuak eta haien ideologia.
5. Joera literarioak

3. GAIA – Egile eta obra garrantzitsuak

3.1. Saritutakoak eta kanonaren inguruko eztabaidak.

3.2. Itzulpena eta Haur eta Gazte literatura

3.3. Corpus kanonikoa

3.4. Azterketaren emaitzak

4. GAIA – Haur-literatura, curriculum eta euskal kultura

4.1. HL euskal curriculumean

4.2. Haur literatura eta euskal kultura

LITERATURA TAILERRAK

Literatura-testuen ekoizpena; literatura sortzeko baliabideak; testu narratibo eta poetikoak ekoizteko bideak; sortutako testuak baloratzeko irizpideak.

Irakasgaiko konpetentziak:

LITERATURA TAILERRAK	KONP./MAILA				
Irakasgaiko konpetentziak	1	2	3	4	5
1. Irakurzaletasuna sustatzea eta idaztera animatzea	X		X		
2. Literatura-prestakuntza jasotzea eta haur literatura ezagutzea		X		X	X
3. Hizkuntzak ikasteko egoerei eraginkortasunez ekitea, kultura eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan. Eskola curriculumean jasotako jabari zientifiko eta kultural anitzeko testuen irakurzaletasuna eta iruzkin kritikoa sustatzea			X		X
4. Ikasgelako praktikei buruz hausnartzea, irakasleen lana hobetzeko. Bakarka eta lankidetzan ikasteko ohiturak eta abileziak eskuratzea, eta horiek ikasleen artean sustatzea	X	X		X	

Irakasgaian zehar landuko diren gaiak:

1. Literatura fantastikoa: Gianni Rodari eta bestelako proposamen narratiboak
2. Poesia eta baliabide poetikoak HGLn
3. Segi dezagun hizkuntzarekin jolasten: experimentazioa, OULIPO, Grafein...

IRAKURKETA TAILERRAK

Haur eta gazte literaturako obrak aztertzeko ereduak; obra kanonikoen irakurketa-lantegia; obra ez-kanonikoek irakurketa-lantegia; beste irakurketa-tailer mota batzuk.

Irakasgaiko konpetentziak:

IRAKURKETA TAILERRAK	KONP./MAILA				
Irakasgaiko konpetentziak	1	2	3	4	5
1. Irakurzaletasuna sustatzea eta idaztera animatzea	X		X		
2. Literatura-prestakuntza jasotzea eta haur literatura ezagutzea		X		X	X
3. Hizkuntzak ikasteko egoerei eraginkortasunez ekitea, kultura eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan. Eskola curriculumean jasotako jabari zientifiko eta kultural anitzeko testuen irakurzaletasuna eta iruzkin kritikoa sustatzea.			X		X
4. Ikasgelako praktikei buruz hausnartzea, irakasleen lana hobetzeko. Bakarka eta lankidetzan ikasteko ohiturak eta abileziak eskuratzea, eta ikasleen artea sustatzea.	X	X		X	
5. Ikasgelako elkarrekintza-prozesuak ezagutzea.					

Irakasgaian zehar landuko diren gaiak:

- 1) Irakurketaren sustapena eta heziketa literarioa
- 2) HGLren kanonak eta irakurketa-bitartekaritza
- 3) HGLko obra klasikoen inguruko solasaldi dialogikoak
- 4) Literatura erreseinak eta bitartekaritza-proposamenak

HAUR ANTZERKIA ETA DRAMATIZAZIOA

Haur antzerkia zer den eta zer ez den ezagutuko dugu eta ikasiko dugu nola landu daitekeen ikasgelan eta zein ezaugarri eta abantaila dituen. Euskal Herrian eta munduan dauden adibide batzuk ezagutuko ditugu eta teknika batzuk praktikatuz, inprobisazioak egingo

ditugu haurrak ikusle eta partaide izateko tresna baliagarriak eskuratuz. Azkenik, ikusi eta ikasitako guztia aplikatzeko helburuarekin, taldeka antzezlan bat sortu eta jokatuko dugu, haur literaturan eta irakurzaletasunaren markoan baliabide eta metodologia berri honen aukerak teoriarik eta praktikan deskubritzeko.

Irakasgaiko konpetentziak:

HAUR ANTZERKIA ETA DRAMATIZAZIOA	KONP./MAILA				
Irakasgaiko konpetentziak	1	2	3	4	5
1. Kideekin eta helduekin izandako interakzioaren dimentsio pedagogikoa ezagutzea, eta talde-jardueren parte-hartzea, lankidetzaren eta banakako esfortzua sustatzea	X		X		
2. Irakurzaletasuna sustatzea eta idaztera animatzea		X		X	X
3. Literatura-prestakuntza jasotzea eta haur literatura ezagutzea			X		X
4. Antzerkia literatura ezagutzeko, lantzeko eta horretan zailtzeko metodologia gisa					

Irakasgaian zehar landuko diren gaiak:

1. Literaturatik antzerkira
2. Arte dramatikoak eta hezkuntza
3. Haurrentzako antzerkia gurean eta munduan
4. Teknika eszenikoak
5. Antzerki proiektua

ESKOLA-LIBURUTEGIA ETA IRAKURZALETASUNA

Eskola-liburutegia eta gelako liburutegia; irakurzaletzeko bideak; ludikotasunetik irakurketara.

Irakasgaiko konpetentziak:

ESKOLA-LIBURUTEGIA ETA IRAKURZALETASUNA	KONP./MAILA				
Irakasgaiko konpetentziak	1	2	3	4	5
1. Lankidetzaren sustatzea, eta baita bakarkako lana eta esfortzua ere	X		X		

2. Ikasketa-guneak diseinatzea eta arautzea aniztasun-testuinguruetan, hiritarren prestakuntzaren balioak osatzen dituzten berdintasun-generoari zuzentasunari eta giza eskubideekiko errespetuari erantzunez		X		X	X
3. Lehen hezkuntzako eskolen antolakuntza eta funtzionamendurako jarduera anitzak ezagutzea. Tutoretza eta orientazio funtzioak betetzea ikasleekin eta haien familiekin, eta ikasle bakoitzaren hezkuntza-behar bereziei erantzutea. Irakaskuntza hobetuz joan behar dela onartzea, eta aldaketa zientifiko, pedagogiko eta sozialetara egokitu behar dela			X		X
4. Irakurzaletasuna sustatzea eta idaztera animatzea	X	X		X	
5. Literatura-prestakuntza jasotzea eta haur literatura ezagutzea					

Irakasgaian zehar landuko diren gaiak:

1. Eskolako liburutegia. Eskola bateko liburutegi baten sorketa eta funtzionamendua. Liburutegi motak (zentrokoa, gelakoa...). Funtzioak, baldintzak, liburutegiaren erantzukizunak.
2. Irakurketarako animazioa. Irakurzaletasuna sustatzeko teknikak eta jarduerak. Proposamenak, kasuen analisiak. Hainbat jardueren buruketa.
3. Animazioa eta liburutegia. Liburutegia animaziorako proposamen eta jardueren gune legez. Jarduera motak, ezaugarriak, Haur edo Lehen Hezkuntzako etapen arabera helburuak.

5. MINORREKO DIZIPLINARTEKO LANA

Minorreko Diziplinararteko Lanak elkarrekintzan jarriko ditu irakasgai bakoitzeko ezagutzak gai jakin baten inguruan lan egiteko. Haur eta gazte literaturako egile edo obra esanguratsuak hartuta, minorreko irakasgai bakoitzean jasotako konpetentziak aplikatuko dituzte ikasleek. Horrela, ikasgai bakoitzean landuko dute lanaren arlo bat, modu jarraituan, Minorreko Diziplinararteko Lana osatuz. Hori bi ardatzetan gauzatuko da; batetik, lanaren lanketa eta aurkezpena urrats ezberdinetan eginez (ikus 3. orrialdeko kronograma); bestetik, edukiak

elkarren segida gisa antolatuz. Beraz, lanak osotasun eta koherentzia handiagoa izango du ikasgai ezberdinetan ikasitakoa txertatzeari begira.

Minorreko lana talde-lanean oinarritzen denez, etengabeko ebaluazioa aukeratzen duten ikasleek eskoletara modu erregularrean joatea bermatu beharko dute. Taldeko kideren baten absentziak gainerakoen lan-prozesua oztopa dezakeenez, **asistentzia** ezin bada bermatu, azken ebaluazioaren modalitatea aukeratzea gomendatzen

Minorreko lana egiteko abiapuntua edo gaia honako hau izango da: **alfabetoak**. Minorreko lana taldeka egin beharko da. Beraz, ikasturtearen hasieran, sei laguneko taldeak osatuko dira.

Minorreko lanaren faseak

Minorreko lanak lau fase nagusi hauek izango ditu:

- 1) 5. astean lanen aukeraketa egingo da, “Gaur egungo Haur eta Gazte Literatura” ikasgaiaren egindakoan oinarrituta.
- 2) 9. eta 10. asteetan, liburu horiek oinarri hartuta antzezlanaren gidoia idatziko dute “Haur antzerkia eta dramatizazioa” eta “Literatura tailerrak” irakasgaietan.
- 3) 14. astean, aukeratutako liburuaren artefaktua sortu eta haren sustapen kanpaina egiteko aurkezpenak egingo dira “Liburutegiak eta irakurzaletasuna” irakasgaiaren.
- 4) 15. astean, ikasleek antzezlanak egingo dute gelakideen eta irakasleen aurrean (azken aste horretan ez da eskolarik egongo, eta gelako ordu guztiak baliatuko dira azken entseguak eta antzezpenak egiteko).

Minorra eta Garapen Iraunkorreko Helburuak

Minorrean zehar landuko dira inklusioa, genero-berdintasuna, hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren balioa, bai eta irakurketa eskuratzeko aukera berdintasunean oinarritutako hezkuntza ere. Ildo horretan, Minorrak Garapen Iraunkorreko hainbat Helbururekin lotura du, bereziki Kalitatezko hezkuntzarekin (4. GIH), Genero-berdintasunarekin (5. GIH) eta Desberdintasunen murrizketarekin (10. GIH).

Era berean, literatura-hezkuntzaren eta irakurketa-bitartekaritzaren bidez, gizarte inklusiboagoak, kritikoagoak eta kulturalki aberatsagoak eraikitzen laguntzea du xede.

6. JARDUERA OSAGARRIAK

Minorreko jarduera osagarri gisa, urtero hainbat sortzaile, bitartekari eta aditu gonbidatzen dira ikasleekin solasean aritzeko. Jarduera horien antolaketa eta kopurua EHUren finantzaketa-deialdien arabera izaten da. Informazio gehiago kronograman aurki daiteke.

7. MINORREKO HIZKUNTZAZ

Eskola-liburutegia eta irakurzaletasuna minorreko lan-hizkuntza nagusia euskara izango da. Jarduera praktikoa gehien-gehienak euskaraz garatuko dira: idazlanak, solasaldia, eztabaidak, ahozko aurkezpenak, etab. Kontuan hartu beharra dago hizkuntzarekin egingo dugula lan, ahoz eta idatziz, helburu akademikoetara zein sortzailetarako. Halaber, Gradua amaitzean ematen den baliokidetzak ofiziala dela eta, ikasleek C1 maila erakutsi behar dute.

8. MODULUKO OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

ALONSO DE SANTOS, J.L. (2007). *Manual de teoría y práctica teatral*. Castalia.

ANGOLOTI, C. (1990). *Cómic, títeres y teatro de sombras. Tres formas plásticas de contar historias*. Ediciones de la Torre.

ATXAGA, B. (2002). *Alfabeto sobre la literatura infantil*. Media Vaca.

BONNAFÉ, M. (2008). *Los libros, eso es bueno para los bebés*. Océano Travesía.

CERVERA, J. (1984). *Cómo practicar la dramatización con niños de 4 a 14 años*. Editorial Cincel.

COLOMER, T. (2005). *Siete llaves para valorar las historias infantiles*. Fundación Germán Sánchez Ruipérez.

COLOMER, T. KÜMMERLING-MEIBAUER, B. eta SILVA-DÍAZ, M. C. (Ed.) (2010). *Cruce de miradas: Nuevas aproximaciones al libro-álbum*. Banco del Libro-Gretel.

COLOMER, T., et al. (2018). *Narrativas literarias en educación infantil y primaria*. Síntesis.

DELMIRO COTO, B. 2002. *La escritura creativa en las aulas. En torno a los talleres literarios*. Grao.

EQUIPO PEONZA (1995). *ABCdario de la animación a la lectura*. Asociación Española de Amigos del Libro Infantil y Juvenil, con la colaboración de Ministerio de Cultura, Centro

- del Libro y la Lectura, Organización Española para el Libro infantil y juvenil.
- ETXANIZ, X. (1987). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Pamiela.
- ETXANIZ, X. eta FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ, K. (Ed.) (2023). *Egungo euskal albuma*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- ETXANIZ, X. eta LÓPEZ GASENI, J. M. (Zuz.) (2011). *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- ETXANIZ, X. eta LÓPEZ GASENI, J. M. (2011). *XXI. mende hasierako haur eta gazte literatura*. Arabako Foru Aldundia.
- ETXEBERRIA, G. (2001). *Antzerkia eta dramatizazioa*. UE.
- FERREIRA-BOO, C. eta DÍAZ-SEOANE, A. (2021). El abecedario: juegos, letras y formatos en el álbum ilustrado. In B. D. da Silva, L. S. Almeida, A. Barca Lozano, M. Peralbo eta R. Alves (dir. Congr.), Atas do XVI Congresso Internacional Galego-Português de Psicopedagogia: 1, 2, 3 setembro 2021, Universidade do Minho (810-819 or.). Universidade do Minho. https://congreso-xvigp.asocip.com/images/PDF/ATAS_XVI_CIGPP-2021.pdf
- GARRALÓN, A. (2017). *Historia portátil de la literatura infantil y juvenil*. Prensas de la Universidad de Zaragoza.
- IGERABIDE, J. K. (1993). *Bularretik, mintzora. Haurra, ahozketasuna eta Literatura*. Erein.
- IGERABIDE, J. K., & LAURA, E. (2017). *Abecedario titirijario*. Denonartean.
- IGERABIDE, J. K. (2020). *Del pecho a la palabra. Infancia de canto y cuento*. Pantalia.
- KAZABON, A., & MITXELENA, J. (2019). *Animaletarak*. Denonartean.
- KAZABON, A., & MITXELENA, J. (2025). *Lanbideletrak*. Denonartean.
- LLUCH, G. (2010). *Cómo seleccionar libros para niños y jóvenes. Los comités de valoración en las bibliotecas escolares y públicas*. Trea.
- LLUCH, G. eta SANZ, A. (2021). *Analizar relato #LIJ*. Universidad Castilla-La Mancha.
- LANDA, M. (2018). *Txikiaren handitasuna literaturan*. Erein.
- LÓPEZ, M. E. (2015). *Un pájaro de aire. La formación de los bibliotecarios y la lectura en la primera infancia*. Biblioteca Nacional de Colombia. https://catalogoenlinea.bibliotecanacional.gov.co/client/es_ES/search/asset/98524
- LOPEZ GASENI, M. eta ETXANIZ, X (2005). *90eko hamarkadako Euskal Haur eta Gazte literatura*. Pamiela.
- LUKI, M., LERTXUNDI, A., eta AGIRREZABAL, L. (2023, martxoak 29). *Umeak beren buruaren jabe dira* [Audio-podcast]. Galtzagorri Elkarte.

<https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/gonagorri-podcast-a/umeak-beren-buruaren-jabe-dira>

- LUKI, M. et. al. (2025, apirilak 1). *Poropopoesia galaktikoa* [Audio-podcast]. Galtzagorri Elkarte. <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/gonagorri-podcast-a/poropopoesia-galaktikoa>
- MARTÍNEZ, P. eta JUAN, A. (2025). *Cada uno ve lo que sabe. Una guía para aprender a mirar imágenes a través del álbum ilustrado*. Gustavo Gili.
- MATA, J. (2004). *Cómo mirar a la luna. Confesiones a una maestra sobre la información del lector*. Grao.
- MATA, J. (2009). *Animación a la lectura. 10 ideas clave*. Grao.
- MORENO, V. (1994). *El juego poético en la escuela*. Pamiela.
- MORENO, V. (2004). *Lectores competentes*. Pamiela.
- OLAIZOLA, J. M. [koord., et al.] (2003). *Zer egin dezake nire ikasle batek liburu batekin?* EIE.
- OLAIZOLA, J. M. (2020, otsailak 5). Jesus Mari Olaizola 'Txiliku': "Hizkuntzarekin gehiago jolastu beharko genuke". *Hik Hasi*.
http://zaharra.hikhasi.eus/Albistegia/20200205/Jesus_Mari_Olaizola_Txiliku:_Hizkuntzarekin_gehiago_jolastu_beharko_genuke
- QUENEAU, R. (2007). (Itzultz. Xabier Olarra). *Estilo ariketak*. Igela.
- SANJUÁN, M. (2015). Los abecedarios ilustrados como “artefactos” estéticos y literarios: aproximación a su poética. *Ocnos*, (14), 42–64.
https://doi.org/10.18239/ocnos_2015.14.04
- SILVA, S. R. ETA MARTINS, D. M. (2016). Con letras se hacen palabras: contribuciones para una caracterización del 'libro-abecedario' para la infancia. *Elos: Revista De Literatura Infantil E Xuvenil*, 3, 143-165. <https://doi.org/10.15304/elos.3.3413>
- TEJERINA, I. (1994). *Dramatización y teatro infantil*. Madril.
- RODARI, G. (2020). *Gramática de la fantasía: Introducción al arte de inventar historias* (10. ed.). Kalandraka.
- VAN DER LINDEN, S. (2013). *Álbum[es]*. Ekaré/Variopinta/Banco del Libro.